

# GIZON MANTSOA

AGATHA CHRISTIE



A. Christie txikitan

1997. urtea (abuztua)  
Itzulpena: X. Galarreta

Lily Margravek eskularruak belauen gainean jarri, keinu urduri batez leundu eta aurreko aulkian eserita zegoen gizonari begirada bat jaurti zion.

Bazekien monsieur Hercule Poirot nor zen (ikertzaile ospetsua!), baina lehenengo aldiz ikusten zuen bere begiekin.

Gizonaren itxura komiko eta ia-ia barregarria zela-eta, hari buruz osatuta zeukan ideia zalantzan-edo jarri zuen. Arrautza-buruko eta bibote handiko gizon txiki eta barregarri hura nola izan zitekeen berataz kontatzen ziren gauza harrigarri haien guztien protagonista? Denbora pasatzeko zertan ari zen ikusita, umea bezalakoa iruditu zitzaion. Zurezko dado txikiak elkarren gainean pilatzen ari zen, eta zeregin horretan bazirudien askoz interesatuta zegoela, entzuten ari zen istorioan baino.

Lily isildu zenean, adi-adi geratu zitzaion begira.

«Mesedez, mademoiselle, jarraitu aurrera. Ematen ez badu ere, arreta handiz entzuten ari natzaizu. Egon lasai».

Neskak kontaktari ekiten zion bitartean, Hercule Poirot zurezko dado txikiak elkarren gainean pilatzen hasi zen berriro ere. Kontaketa izugarria zen —indarkeriazko eta tragediazko kontaketa—, baina

neskaren ahotsa hain lasai eta hotza zen, kontaketa hain zen zehatza, ezen, gizatasun-arrastorik ez zeukala ematen baitzuen.

Azkenik, istorioa bukatu zuen.

«Ez dakit gauzak argi eta garbi azaldu ditudan», esan zuen neskak apur bat aztoraturik.

Poirotek baietz aditzera eman nahirik, bere buruari goitik behera eragin zion. Gero, zurezko dadoak eskuan hartu, mahai gainetik denak bota, eta aulkian patxadaz eseri ondoren, neskak kontatutakoa laburbiltzen hasi zen, erkainak elkarri atxikita eta begiak sabairantz zuzenduta.

«Orain dela hamar egun, sir Reuben Astwel hil zuten. Asteazkenean, poliziak hildakoaren iloba atxilotu zuen: Charles Levenson. Kontatu didazunez, poliziak honako hau dauka haren aurka: —okertzen banaiz, zuzendu niri, mademoiselle—. Sir Reuben berandu arte aritu zen bere langela pribatuan eskutitz batzuk idazten. Dorreko gelan, hain zuzen. Levenson jauna berandu heldu zen etxera, eta bere giltzarekin ireki zuen atea. Etxezainak Dorreko gelaren azpian lo egiten duenez, osaba eta iloba entzun zituen eztabaidaka. Aulki batek erortzean ateratzen duen zaratak eman zion amaiera eztabaidari, eta itotako oihu bat entzun zuen jarraian.»

«Etxezaina asaldu zen, eta zer gertatzen zen ikusteko ohetik jaikitzea pentsatu zuen. Baina handik segundo gutxira, Levenson jaunak alai txistu eginez gelatik ateratzen entzun zuenean, ez zuen gehiago pentsatu kontu hartaz. Eta biharamunean, neskameak sir Reuben hilik aurkitu zuen idazmahaiaren ondoan. Gauza astun batez jo zuten. Pentsatzekoa denez,

etxezainak ez zion berehala kontatu bere istorioa poliziarri. Oso gauza normala, nire ustez. Ez al da horrela, mademoiselle?»

Ustekabeko galderak halako izualdi bat eragin zion Lily Margraveri.

«Barka, nola esan duzu?» galdegin zion.

«Horrelako kasuetan, batek gizatasun pixka bat bilatzen du» erantzun zion gizon txikiak. «Gertaerak kontatzen ari zinen neurrian —hain harrigarriro, hain zehazki—, dramaren antzezlariek txotxongilo bihurtzen zenituen. Baina nik... nik beti bilatzen dut gizatasuna. Nire buruari galdetzen ari nintzaion, etxezain honek —nola esan duzu deitzen dela?»

«Parsons».

«Ondo. Parsonsek bere kategoria berekoen ezaugarriak izango dituenek, ez zuen poliziarekin zerikusirik izan nahi izango. Beraz, poliziarri ahalik eta gutxiena kontatuko zien. Etxeko inor estuasunean jar zezakeen ezer ez zuen esan nahi izango, ez horixe. Gaizkile edo lapur baten lana izan dela sinetsiko du. Bai, merezi luke zerbitzarien leialtasunari buruzko azterketa sakon bat egitea.»

Poirotek pozik barre egin eta gorputza atzerantz bota zuen.

«Dagoeneko», jarraitu zuen, «etxeok beren istorioa kontatu dute, baita mister Leversonek ere, noski. Eta poliziarri esan dio berandu etxeratu zela eta zuzenean oheratu zela, osaba ikusi gabe.»

«Halaxe da, bai.»

«Eta inork ez du ikusi istorio hori dudamudatan jartzeko arrazoirik», hausnartu zuen

Poirotek, «Parsonsek izan ezik, jakina. Gero, Scotland Yardeko inspektore bat agertu da —Miller inspektorea esan duzu, ezta?—. Badakit nor den, behin baino gehiagotan topatu dut-eta. Gizon azkarra eta adimenduz ongi hornitua, benetan.

«Bai, oso ongi ezagutzen dut! Eta Miller inspektore azkarrak barrutiko inspektoreak ikusi ez duena ikusi du, antza denez: Parsons urduri eta kezkatuta dabilela, inori aitortu ez dion zerbait badakielako. *Eh bien*, oraingoz ez da gehiago arduratuko Parsonsez. Ondo baino hobeto frogaturik dago gau hartan ez zela lapurrik sartu etxean. Hortaz, hiltzailea etxe barruan bilatu behar da, eta ez etxe kanpoan. Bien bitartean, Parsons beldur da, atsekabez dago. Eta bere sekretua norbaiti kontatuko balio, lasaitasun ederra hartuko luke.

«Bere esku zegoen guztia egin du eskandalurik ez sortzeko. Baina ezin du gehiago jasan. Beraz, Miller inspektoreak Parsons en istorioa entzun du, eta galdera bat edo beste egin dio, eta orduan ikerpen batzuk egiten hasi da bere kasa. Hortik ateratzen dituen ondorioak oso delikatuak dira —oso delikatuak.

«Dorreko gelan, idazmahaiaren ertz batean, hatz-aztarna odoleztatu batzuk aurkitu dituzte, eta Charles Leversonenak dira. Neskameak azaldu duenez, hilketaren ondoko goizean ur-ontzi odoleztatu bete bat atera zuen Leversonen gelatik. Leversonek hatza labainaz zauritu zuela adierazi zion. Eta izan ere, zauri txiki bat zeukan, bai, baina hain zauri txikia zen... Aurreko gauean janzten zuen alkandoraren eskumuturretariko bat garbitzen saiatu

zen, baina hala ere, jakaren mahukan odol-tantak aurkitu dituzte. Diruz estu eta larri omen zebilen. Eta sir Reuben hil ondoren, diru piloa heredatu behar zuen. O, bai, oso kontu delikatua da, mademoiselle.» Isilune bat egin zuen.

«Hala ere, hona etorri zara.»

Lily Margravek soin finak jaso zituen.

«Esan bezala, monsieur Poirot, lady Astwellen partez etorri naiz.»

«Ez zinateke borondatez etorriko, ezta?».

Gizon txikiak maltzurkeriaz begiratu zion; besteak ez zion ezer ihardetsi.

«Ez didazu erantzun.»

Lily Margrave eskularruak leuntzen hasi zen berriro.

«Niretzat oso zaila da, monsieur Poirot. Lady Astwelli zor diodan leialtasuna kontutan hartu behar dut. Egia esan, haren zerbitzurako lan egiten dut, eta besterik ez. Baina haren alaba edo iloba izango banintz bezala hartzen nau. Oso ondo jokaten du nirekin. Eta bere akatsak baditu ere, ez zait ongi iruditzen bera juzgatzea. Gainera, zuri ere ez nizuke kalterik egin nahi izango. Beraz, ez dizut kasu honetan parte har dezazun eskatuko.»

«Gutziz ezinezkoa da Hercule Poiroti kalterik egitea, *cela ne ce fait pas*», ihardetsi zion gizon txikiak poz-pezik. «Nire ustez, lady Astwellek bere burua txoriz beteta daukala pentsatzen duzu zuk. Esan, ez al da horrela?»

«Egia esatea nahi baduzu—»

«Hitz egin garbi, mademoiselle.»

«Nire ustez, kontu hau guztiau erabat

zentzugabea da.»

«Hala uste duzu?»

«Ez dut lady Astwelli buruz gaizki hitz egin nahi—»

«Ulertzen dut», xuxurlatu zuen Poirotek.  
«Oso ongi ulertzen dut.» Begi-keinu batekin, aurrera jarraitzera gonbidatu zuen.

«Emakume aparta da, benetan; eta ezin atseginagoa. Baina ez da —nola esango nizuke? Ez da kultura handiko emakumea. Sir Reubenekin ezkondu baino lehen, badakizu antzezlaria izan zela. Mota guztietako sineskeria eta ustekerietara emana da. Berak esaten duena ez dago zalantzan jartzetik. Eta arrazoi izan ez arren, ez du inoiz amore emango. Berak dio mister Leversonez susmatzea ergelkeria handia dela, polizia leloak direla, gauzak nahasten besterik ez dakitela... Bete-bete sinesten du Charles errugabea dela.»

«Baina ez du frogarik, ezta?»

«Bat ere ez.»

«Ah! Eta orduan...?»

«Gauzak horrela», ihardetsi zion Lilyk,  
«zugana etortzea ez zela probetxugarria izango esan nion, ez baitago ikerpen bat egiteko arrazoi nahikorik.»

«Hori esan al zenion?», esan zuen Poirotek.  
«Oso interesgarria da.»

Poirotek Lily Margrave begiez aztertu zuen gaingiroki, eta soineko beltz eta txukunaren hainbat zehazkizunei eta lepoan korapilatzen zitzaion fular zuriari eta kapelatxo beltz eta dotoreari erreparatu zien. Neskaren dotorezia, kokots luzeko aurpegi



politta, betile luzeak eta begi urdin-ilunak aztertze-  
koa astia izan zuen. Poliki-poliki, Poirotten jarrera  
aldatzen joan zen. Momentu hartan, gertatutakoa  
baino, aurrean eserita zegoen neska axola zitzaion.

«Antza denez, lady Astwell apur bat  
txoriburua da, eta agian baita pittin bat histerikoa  
ere.»

Lily Margravek buruaz berehala erantzun  
zion baietz, arrazoi zuela.

«Bete-betean asmatu duzu. Esan bezala, oso  
atsegina da. Baina guztiz ezinezkoa da harekin hitz  
egitea edota lasai arrazonatzea.»

«Ziur aski, norbaiti susmo txarra hartu dio»,  
eman zuen aditzera Poirotek, «baina ziur aski  
taiugabeko susmoa da.»

«Horixe pentsatzen du berak hain zuzen»,  
deiar dar egin zuen Lilyk. «Ezinikusi handia hartu dio  
sir Reubenen idazkari gizarajoari. Hiltzailea bera  
dela dio. Baina erabat frogatuta gelditu da berak ezin  
zezakeela horrelakorik egin.»

«Orduan, susmo txar horrek ez al du  
oinarririk?»

«Ez horixe. Senak bultzatuta pentsatzen du  
horrela.»

Lily Margraveren ahotsa trufagarri bihurtu  
zen.

«Ikusten dudanez, mademoiselle», esan zuen  
Poirotek irriz, «zuk ez duzu intuizioan sinesten.»

«Nire ustez, hori guztia ergelkeria da»,  
ihardetsi zion Lilyk.

Poirot aulkian patxadaz eseri zen.

«Intuizioa», xuxurlatu zuen Poirotek,

«Jainkoak emandako dohain berezia dela gustatzen zaie *les femmesei* pentsatzea. Baina behin bakarrik asmatzeko, bederatzi aldiz hanka sartu behar dute.»

«Hala da», esan zuen Lilyk, «Beno, dagoeneko azaldu dizut zer-nolako emakumea den lady Astwell. Ez dago berarekin zentzuz hitz egiterik.»

«Zorionez, zu, mademoiselle, zentzudun eta zuhurra zara. Beraz, hona etorri zara ni *au courant* jartzen ahalegintzeko.»

Poiroten ahoskera dela-eta, neska urduri jarri zen.

«Bai, noski», hasi zen bere burua zuritu nahian, «Badakit zure denborak asko balio duela.»

«Oso atsegina da zure partez, mademoiselle», esan zuen Poirotek, «baina —bai, egia esan, une honetan ikerpen-lan ugari dauzkat.»

«Hala izango zela uste nuen», esan zuen Lilyk aldi berean aulkitik jaikiz. «Lady Astwelli esango diot—»

Baina Poirot ez zen zutik jarri; aitzitik, aulkian are erosoago jarri eta neskari tinko begiratu zion.

«Presaka al zabilta? Eseri berriro beste unetxo batez, otoi.»

Neskaren aurpegia nola lotsagorritzen zen eta berehala nola berreskuratzen zuen kolorea ikusi zuen Poirotek. Poliki-poliki eta gogo txarrez, neska eseri zen.

«Erabakiak azkar hartzen dituzu, mademoiselle», esan zuen Poirotek. «Barkatu, zaharra naiz eta erabakiak poliki-poliki hartu beharra

daukat. Baina gaizki ulertu didazu, mademoiselle. Nik ez dut esan lady Astwell bisitatuko ez dudanik.»

«Orduan, etorriko al zara?»

Neskak lur jota hitz egin zuen. Ez zion Poiroti begiratu, lurrari baizik. Beraz, Poirotek sakon eta zorrotz arakatu zuenean, ez zen ohartu ere egin.

«Esaiozu lady Astwelli, mademoiselle, zernahitarako haren agindupean nagoela. Gaur arratsaldean, Mon —Repos al du izena?— Mon Reposen egongo naiz.»

Poirot zutik jarri zen, baita neska ere.

«Bai, e-esan egingo diot. Zure aldetik, oso atsegina da etxera etortzea, monsieur Poirot. Dena den, nire buruari galdegiten diot ez ote duzun zeure denbora galduko.»

«Balite, bai, baina —nork jakin?». Gehiegizko jendetasunez lagundu zion ateraino. Gero, egongelara beltzuri itzuli eta pentsaketan murgildu zen. Behin baino gehiagotan buruari gora eta behera eragin zion. Azkenik, atea ireki eta zerbitzariari dei egin zion.

«Nire George zintzo horrek, prestatu maleta txikia, mesedez. Arratsaldean kanpora noak.»

«Oso ondo, nagusi», esan zuen Georgek.

Ingelesa zen burutik oinetara: altua, gorputxurakoa eta adierazkortasun gutxikoa.

«Emakume gazte bat oso fenomeno interesgarria duk, George», esan zuen Poirotek aulkian etzanez eta zigarro bat piztuz. «Batez ere, badakik, azkarra denean. Bati esatea zerbait egiteko eta aldi berean gauza hori ez egiteko tentuan jartzea oso lan fina duk. Trebezia behar duk. Bai, oso neska

trebea izan duk —o, benetan trebea— baina Hercule Poirot, ene George zintzoa, are trebeagoa duk.»

«Sarritan entzun dizut hori bera, nagusi.»

«Ez zaiok idazkaria interesatzen», murmurikatu zuen Poirotek. «Eta lady Astwellek hari buruz dauzkan susmoak destainaz baztertzen dizkik. Hala ere, lotan dauden txakurrak ez dik inork iratzartzea nahi. Baina nik, ene George zintzoa, nik iratzarri egingo dizkiat, txakurrak nire aurka borrokatu beharko dik! Han, Mon Reposen, drama bat zegok. Giza tragedia duk, eta zirikatu egiten naik. Oso azkarra izan duk neska hori, baina ez nahikoa. Nire buruari galde egite zioat zer —zer aurkituko ote dugu han?»

Azken hitzei jarraitutako geldiune dramatikoak Georgeren ahotsak apurtu zuen, esanez:

«Frakak ere sartuko al ditut maleta barruan?»

Poirotek so egin zion, tristuraz.

—Hi beti hire kontuetan buru-belarri sartuta. Oso ona haiz nirekin, George.»